

Euskadin bizi direnen pertsonen desgaitasunak gora egiten du euren posizio sozioekonomikoak behera egiten duen heinean

Maite Morteruel eta Unai Martín



Desberdintasun sozialaren ondorioak pairatzen dituzten euskaldunek maizago izan ohi dute desgaitasun bat edo euren eguneko jardura burutzeko muga kronikoren bat. Fenomeno horrek gizarte-espektro osoari eragiten dio, ez bakarrik pertsona txiroenei, klase mesedetuen artean ere ematen da. Halatan, klase sozialean edo ikasketa mailan behera egiten den neurrian, bizitokiak gabezia gehiago dituen edo hilabete amaierara iristeko zailtasun gehiago denean, gora egiten du desgaitasunaren prebalentziak.

Iradokitutako aipua: MORTERUEL, M. MARTIN, U. (2019) *Euskadin bizi direnen pertsonen desgaitasunak gora eiten du euren posizio sozioekonomikoak behera egiten duen heinean*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena- Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/desberdintasun-sozialak-osasunean/>




Osasun arloko desberdintasun sozialak modu sistematikoan agertzen dira, edozein izanik ere aztertu nahi dugun osasun aldagaia edo adierazlea. Desgaitasuna osasun egoeraren adierazle bat da, pertsonen iraupen luzeko muga batez ari zaigu eta zerikusia du edozein osasun arazo kronikorekin. Halaber, dagokion testuinguruan adinaren arabera burutzeko ohikoak diren jardueretarako duten gaitasunaren berri ematen digu. Aztertu izan diren tokietan agerian geratu da nola desgaitasun prebalentziak handiagoak diren maila sozioekonomiko baxuagoko populazioetan eta, gainera, prebalentzia horiek nola doazen apurka-apurka gora gizarte-hierarkian behera egiten den heinean. Euskal errealitatera etorrita, gauza bera gertatzen da. Ondoren, euskal biztanleriaren desgaitasun ezari buruzko datuak azaltzen dira, desberdintasun sozial motaren arabera banatuta: klase soziala, ikasketa maila, bizitokiaren gabezia sozioekonomikoaren maila eta hilabete amaierara iristeko den zailtasuna.

Datuak interpretatzeko argibiderako, esan behar da Euskadiko 2018ko Osasun Inkestan adin-talde bakoitzari lotutako jarduerak burutzeko mugen maila ezberdinak aztertzen direla, hala nola jolastea, ikastetxe edo prestakuntza-zentro batera joatea, eguneroko oinarritzko lanak burutzea, lan produktibo bat egitea, gizarte harremanetarako edo kirol jardueretako jarduerak, edo bere kabuz bizitzeko laguntza beharrean dela adieraztea.

Desgaitasunetik libre bizi da euskal herritarren gehiengo handia, emakume eta gizonen %88k baino gehiagok ez du bere eguneroko jardueran inolako mugapen kronikorik jasaten. Alabaina, eta ondoren ikusiko dugunez, ez da desgaitasuna duten pertsonen proportzio bera klase sozial guztietan.

Hasteko, mugapen kronikorik ez duela dioten populazio portzentaje handiagoa da klase sozial altueneko jendearen artean klase sozial baxuenekoetan baino. 1. grafikoan erakusten denez, desgaitasunik gabe bizi den pertsona kopurua jaisten doa gizarte-hierarkian behera goazen heinean, aldea guztiz nabarmena delarik muturreko klase sozialetan. I. klase sozialaren (altuena) eta V. klase sozialaren (baxuena) artean den tartea 7,5 puntu portzentualera heltzen da gizonezkoengan, eta 6,8 puntura emakumezkoengan. Beraz, behar handieneko klase sozialen artean, klase sozial altuenekoekin alderatuz gero, desgaitasun prebalentzia %105,6 gehiago da gizonezkoengan, eta %84 gehiago emakumeengan.

1. GRAFIKOA. DESGAITASUNIK EZ DUTENEN ADINEZ ADINEKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, SEXU ETA KLASA SOZIALAREN ARABERA. EUSKADI 2018




I: KLASA SOZIAL ALTUENA - V: KLASA SOZIAL BAXUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAEON (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Halaber, desgaitasunaren banaketa herritarren hezkuntza mailaren arabera aztertzen denean ere, desberdintasunak ageri dira. Ondoren azaltzen den grafikoan erakusten da desgaitasunik gabe bizi den pertsona kopuru handiena hezkuntza maila handiko taldekoak direla, hots, goiko bigarren mailako edo unibertsitateko ikasketak dituztenak, oinarrizko edo beheragoko ikasketak eta beheko bigarren mailakoak dituztenen aldean. Hala, beheko bigarren mailako ikasketak dituztenen eta unibertsitate ikasketak dituztenen artean, desgaitasun prebalentzian ematen den aldea 9 puntu portzentualekoa da gizonezkoengan eta 7 puntukoa, berriz, emakumeengan.


2. GRAFIKOA. DESGAITASUNIK EZ DUTENEN ADINEZ ADINEKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, HEZKUNTZA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018



ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAEON (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Euskal herritarrek bizi diren tokietako ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuz desgaitasuna nola banatzen den aztertuz gero, patroia sozial berbera ikusten dugu ematen dela gizonezko eta emakumezkoetan. 3. grafikoan ikus dezakegu nola gabezia sozioekonomiko gehiago den bizitokietako jendeak aukera gutxiago duen –faktore honetan, patroia, dena den, ez da horren nabarmena– desgaitasunetatik libre bizitzeko, eta maila hobeko bizitokietan direnek gutxiago jasan ei dutela jarduerak burutzeko mugapen kronikorik.

3. GRAFIKOA. DESGAITASUNIK EZ DUTENEN ADINEZ ADINEKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, BIZITOKIAREN GABEZIA SOZIOEKONOMIKO MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018




I: GABEZIA MAILA BAXUENA - V: GABEZIA MAILA ALTUENA

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE01N (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Azkenik, euskal herritarren desgaitasunaren banaketan desberdintasunak ageri zaizkigu hilabete amaierara iristeko zailtasunak omen dituztela dioten etxeetan bizi diren pertsonak eta zailtasunik ez duten etxeetakoak alderatuz gero. 4. grafikoan ikus daitekenez, hilabete amaierara iristeko zailtasunik ez duten herritar gehiagok ez ei dute erakusten jarduera burutzeko inolako mugapen kronikorik, zailtasun ekonomikoak dituzten eta, aldi berean, desgaitasun handiagoak dituztenen aldean. Desberdintasun hori gizonengan zein emakumeengan, biengan ageri da, baina nabarmenagoa da gizonen artean, ia 10 puntu portzentualeko aldea baita bi taldeen artean.

4. GRAFIKOA. DESGAITASUNIK EZ DUTENEN ADINEZ ADINEKO PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, ETXEAN HILABETE AMAIERARA IRISTEKO DEN ZAILTASUNAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKADI 2018



■ HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNIK GABE

■ HILABETE AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNEKIN

ITURRIA: EGILEEK EGINA 2018KO EAE0IN (EAEKO OSASUN INKESTA) OINARRITUTA

Konklusio modura, desgaitasunak patroi sozioekonomiko bati jarraitzen dio euskal populazioaren artean, behar gu-txieneko taldetakoek aukera gehiago dutelarik desgaitasunetik libre den bizitza batez gozatzeko, edozein dela ere aztertutako desberdintasun mota. Klase sozial baxuenekoak direnek, ikasketa maila baxuagoa dutenek, gabezia so-zioekonomiko gehien den tokietan bizi direnek eta hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituztenek ageri dituzte, diotenez, euren jarduerak burutzeko mugapen kroniko maila handiagoak.



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)